Gizarte digitalizatuaren testuinguruan, ikastetxe honek, pertsonen arteko aurrez aurreko harremanak ikasleen ongizate emozionalerako garrantzitsuak direla iritzita, eta aukera horren alde eginez, ikasleen arteko harremanak sustatu nahian (ezberdintasunak, bazterkeriak, jazarpen egoerak…), irudiaren erabilera desegokiak ekidin nahian, eta ikastetxea leku segurua, atsegina eta abegikorra izan dadila nahi dugulako, internetera sarbidea, deiak egin eta jaso, mezuak idatzi eta jaso, eta irudiak-argazkiak egitea ahalbidetzen duten gailu pertsonalen inguruan, ondorengo araudia onartu du:

1.- Ikasleek ezingo dute eskolara ekarri internetera sarbidea, deiak egin eta jaso, mezuak idatzi eta jaso, eta irudiak-argazkiak egitea ahalbidetzen duen gailu pertsonalik (*smartphone*, *smartwach*, tableta, ordenagailu, bideokontsola eramangarri, argazki kamera digital, mp3-mp4…).

Irteera, txango edota ibilaldi kasuan, ikastorduak direla kontutan izanik eta irakasleen ardurapean egonik, **ezingo da aurretik aipatu diren gailu pertsonalik eraman.**

Zentzu horretan, gogoratu eskolako orduetan familia eta seme-alaben arteko harremana edozein unetan gauzatu daitekeela i**kastetxearekin** kontaktuan jarriz.

2.- Ikasleren batek aipatutako gailu pertsonal bat baimenik gabe **ekarriko balu**, zuzendaritzan egongo den kutxa batean sartu beharko du (ikasleak) eta, guraso edo legezko arduradunari deituko zaio, eta ikastetxera bertaratu beharko da jasotzera.

2.1. Gailua duela **antzematen duen heldua**, ikaslearekin batera zuzendaritzara joango da. Z**uzendaritzako kidearekin batera** gailua zuzendaritzako kutxan sartu, **legezko arduradunari** deitu (zuzendaritzakoak), eta ikastetxera bertaratu beharko da jasotzera.

Arau hauste errepikakor baten aurrean (gehienez 3 aldiz), ikastetxea eta guraso edo legezko arduraduna elkartu eta **"Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko, abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak"** ezarritakoren arabera jokatuko da.

3.- Guraso edo legezko arduradunen batek beren **semeak edo alabak aipatutako gailu pertsonal** bat eskolara ekartzeko edota irakaslearen ardurapean dagoen ekintzetara eramateko **beharra** duela irizten badio, **ikastetxearekin harremanetan jarri beharko du gailu hori eramango duela adierazteko**. Ezinbestekotzat jotzen diren beharren aurrean (osasun arazoak adibidez) onartuko dira soilik. Erabilpen arauak zehaztu ondoren**, ikasleak beteko ez balitu**, gurasoak edo legezko arduradunak etorri beharko dira gailua jasotzera.

4.- Eskolako langileek (Irakasleek, hezitzaileak, jantokiko langileek, AZPkoek) aipaturiko gailuak eremu pribatuan eta ikaslerik gabe daudenean soilik erabiliko dituzte. Kontuan izan ikastetxeko gailuekin sortzen diren edukiak eskola materialak direla eta ezin direla beste hedabideetan zabaldu.

5.- Eskolako langileak, eredu izanik, **ezingo dituzte telefono mugikorrak agerian izan, soinuarekin eduki edota ikasleen aurrean erabili**. Haurrekin ikastetxeko gailuak erabiliko dira bakarrik, hauek ere guztiz beharrezkoa eta ezinbestekoa denean, garbi utziz ikastetxekoa dela eta lanerako ari direla erabiltzen.

6.- Neurri hauek abian jarri eta eraginkorrak izan daitezen, **familien babesa behar dugu**. Horregatik, planteatzen diren neurri hauekin bat egitea eskatzen zaizue; eta **eredu izanik, eskola eremua mugikorrik gabeko arnasgune bihurtzen laguntzea**.